# Loreil - Abestiak

## LILI EDEŔA

*Valdes-Goikoetxea'taŕ A·*







OARRA: Ointxe argitaldu dogun *Andra Maria'ren Loretako Ila*'n dago abesti eder au ta beste bost geyago.

# ORRILLA

Eldu da apañez udaberria
apaindurikan lorez zelaya,
eldu da Orril euzkiz jantzia
ostoz jantziyaz zuaitz tantaya.
Baso ixilian txoriyak abes,
parrez dijoa errekatxua,
basatxaunuak bere joalez
itxartu nai du mendi - gogoa,
ta donokira Miren'i maitez
apal bidaldu agur gozoa.

Aize legunak lore polita
belardian du bigun laztantzen
eta gozoro bere likurta
mendi guzian gero zabaltzen.
Itxas urdiña ta oskarbia
daude maitaro elkar - begira,
biyen erdian itxas - ontzia
eguzki izpitan dizt ageri da;
ontzi - gizonak uste guzia
Izar txit argi Miren'gan dama

Iturritxuak mar - mar dario
osasungarri ur txit garbia,
eta oparo asetzen dio
nai guziari bere egarria.
Aitonak jaurti du bere ituna,
billobak pozez du txistu jotzen;
zuaitz - kerizan dago baita ama
semetxuari lo - arazitzen,
ta Neskutzari, gotzon kutuna
jagon deyola dio eskatzen.

Tontor alayak ta baso itunak
beren olerkiz digute deitzen,
ta biotzian ain dei legunak
yoran garbiak ditu esnatzen.
Urrezko Orrillan den-denak du itza
goraldutzeko Miren bigunki,
lorien illan gure otoitza
dijoakiyo Goi - Loreari,

eta demayo maitez biotza
Maitasunaren Bakaldun oni.

Eta Miren'ek bere illa dan lez
donokitikan donesten gaitu,
ta xamur, esker deunaren intzez
gure gogoak gozatzen ditu.
Berak, biziro gure biotzak
maite garbitan sutu ondoren,
deramazkigu gora gogoak
ludi - kutsutan galdu baño len,
oro - aldiyan poz - betikoak
Goiko Jaunakin izan ditzaten.

**TENE.**

*JAUNGOIKO - ZALE Bazkidiak,*
*biztu egizue il onetan*
*zeuen errijetan*
*Andra Maria'ganako eraskuna.*
*Lora - il au andiro ta egokiro*
*ospatu dedin*
*alegin egizue.*
*Euzkel - errijan euzkeraz egitia*
*biar - biarrezkua da*
*euzkeraz irakurtaldijak*
*euzkeraz abestijak be.*
*Onetarako bere bizikua dozue*
*ointxe argitaldu dogun*

**Andra Maria'ren Loretako Ila**

*Onek bai daukazala irakurgei sakon mamintsuak.*
*Au lako idazti asko irakurri ba'leitez gure errijan*
*kristiñautasuna sendotuko litzake.*
*Zabaldu egizu ba, aldozun giño.*

# Bazkide barrijak

| | |
|---|---|
| Luis de Etxabarri | Bilbao. |
| Antonio Garcia | Lekeitio. |
| *Juan Jose de Arostegi* | » |
| Martín de Elorriaga | Zumaya. |
| Felipe de Ibargutxi | Ubidea. |
| Julián de Fullaondo, Jauparija | Lejona. |
| Gregorio de Lazagabaster, » | Suanso (Santander). |
| Fortunato de Unzueta, Jauparija | Abadiano. |
| Simón de Zarraga » | Begoña. |
| Ricardo de Luzarraga | Gernika. |
| Batzoki Getxotarra | Algorta (Getxo) |
| Leona de Gorostitza | Durango. |
| Miguel de Ortubai | Bakio. |
| Pedro de Jauregizar | » |
| Casiano de Imatz | » |
| Cipriano de Jauregizar | » |
| Pedro de Ormaetxea | Bilbao. |
| Robustiana de Muxika | Deba. |
| Enrique de Zenikazelaya, Jauparija | Lekeitio. |
| Bonifacio de Iturriza | Bilbao. |
| Marcelino de Uribiondo | Balmaseda. |
| Esteban de Garai | Mondragón. |
| Lorenzo de Rekakbetxea | Portugalete. |
| Zabala-Arana'tar Joseba, Aba | Bilbao. |

## IL IZPARRAK

Bilbao'n, Otsalla 17'gn. il da Orbea eta Irueta'tar Perderika, Iñaki **gure bazkidiaren anaya**.

Izparringitik **artu genduan izpar samin** au, gaur arte beste ingi batzuen **artean aiztuta euki dogu**, baña berandutxo bada be. argitaldu barik ez dogu itxi gura, geure irakurle gustijak otoi bana bere gogo-aldez egingo da. bela uste dogu-ta.

Gure lagun Iñaki, eure samin aldijan lagun gaituala bai - dakik.

* * *

Jorralla 8'gn. **Durango'tik zerura** igon **zan Belaustegigoitia** eta **Ortueta'tar Joseba Ander**, iru **urtedun mutikotxua**. Bere **guraso saminduak gure** samiñaren **agerkai** au artu begiskue.

ZORNOTZA.-Jaungoiko Zale'ren irarkolea.